

# Sagardoz blai

Santio eguneko ajeak bihar arte itxaron beharko du agertzeko, astigarrak ez baitaude prest gelditzen diren bi egunak gartzeko. Ohikoa den bezala, gaur goizean, 7:00etan, trakak eguna esnatuko du. Ordu erdi geroago, 7:30etan, sokamuturra izango da dultzaineroekin batera. Ondoren, atsedean hartzeko betarik gabe, 9:00etan, Olartzungo trikitilari gazteak herriko kaleetatik ibiliko dira eguneko lehen orduak girtzen. 11:00etan, berriz, haurrentzat prestatutako ekitaldiak hasiko dira, eta horretarako haurren parkea antolatuta dute.

## \* Sagardo dastaketa

Astigarraga aspaldidanik, betidanik ez esateagatik, egon da sagardoarekin lotuta. Astigarragak, sagardotegi denboraldia hasten denean, bisitari ugari jasotzen du, Euskal Herri osotik eta baita kanpotik ere. Gaur egungo arrakasta handia bada ere, aspalditik datorkio herri honi sagardoarekiko lotura.

Astigarragan sagardoa lantzen zelako lehen berria 1104. urtekoa da. Bertako baserri guztiek zeukaten beren sagastia, edo sagarrondoa behintzat. Batzuek, besteek baino gehiago, denek lantzen zuten sagarra. Sagardoa egiteko trujela ere baserri gehienetan zuten, behintzat familiakoek edateko adina sagardoa egiteko. Gaur egun, mendeetan zehar manten-



Sagardo dastaketa izango da gaur goizeko 11:30etan, Foru enparantzan. ✦ ANDER GILLENEA

dutako ohitura hura, tradizioaren eta negozioaren edo industriaren erdibidean dago. Antzinean Astigarragako familia guztiek

lantzen zutena, egun, sagardotegiak ustiratzen dituztenen esku dago, eta ez dira gubxi sagardoaren munduan aritzen direnak: Gurutzeta, Bereziartua edo Mina, besteak beste.

Astigarragako sagardoa dastatu nahi izanez gero, aukera paregabea duzu gaur goizean, 11:30etan, herriko plazan. Bitartean, leku eta ordu berean, Santiago Oteiza eta Pedro Zapata artisauen burdina eta egur lanen erakustaila izango da. Ondoren, 12:30etan, herriko presoei omenaldia eskainiko zaie plazan.

## \* Herri kirolak ere protagonistak

Herri kirolek ere ezinbesteko zita dute, urtero bezala, Astigarragan. Aurtengo herri kirol jaialdian idi probak izango dira protagonis-

tak. Telleria, Frantsila Berri eta Intzinarteren idiek 2.000 kiloko harriekin egingo dute saioa. Saio ikusgarria, beraz, Astigarragako Foru enparantzan ikusgai izango dena. Bitartean, Peñagarikano eta Telleriak jarriko diote doinua ekitaldiari.

Arratsaldean, 14:00etako herri bazkari bapoaren ondoren, herri kirol jaialdiak aurrera jarraituko du. 18:00etatik aurrera aizkolariak eta sagar biltze proba izango dira nagusi. Gipuzkoako hirugarren mailako aizkolari txapelketa jokatu da Astigarragan.

Horrekin batera, Astigarragan ohizkoa den sagar biltze eta garraiatze proba egingo da. Proba hori egiteko bi pertsonaz osatutako taldeak behar dira. Talde bakoitzak 50 kiloko hiru zaku

bete behar ditu sagarrez, eta 30 metrora dagoen beste leku batera eraman beharko ditu zakuak. Sagarrak 50 metro karratuko itxitura batean egongo dira pila-tuta. Sagarrak kizkiaz bildu, saskiak bete, zakuetara pasatu eta helmugara iristeko denbora gutxi behar duen bikotea izango da lehiaketa biltze eta berezi honetako irabazlea.

Gau partean, dantzarako denbora ere izango da. Gaueko 23:30etatik 3:30etara Olalume-ko Trakets taldeak dantzaldia girtuko du hara hurbildu nahi duten guztientzat. Beraz, ondo pasatzeko gogoia dutenek Astigarragan dute zita, mota eta tanke- ra guztietako ekitaldiak eta aukerak izango baitira bertan.

EIDER FERNANDEZ

## ISABEL JANARIDENDA

Tomas Alba, 11

Tf.: 55 23 67

ASTIGARRAGA



Rafa Garrikoetxea  
MEDIKU ODONTOLOGOA  
415. KOLEGIATUA

Pelotari kalea, 17 behe - Tel.: 33 00 89 - ASTIGARRAGA

## LEUN S.A.L.

### BATERIAK

▲ Bateriak eta Trakzio ekipoen banaketa eta zaintze lana.

▲ Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxako Banatzale Ekklusiboa.

Donostia Ibilbidea, 42 - 8. partzela - 15. lokala 26. Poligonoa  
Tel.: 33 01 81 - Faxes: 33 01 97 - ASTIGARRAGA



## "LABO" S.L.

### BURDINAK

26 Poligono Industrialdea (28 Partzela)  
Tf.: 55 58 00 Faxes: 55 75 01  
ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)

Santio Jai zoriotsuak  
igaro ditazutela

## SAMSÓ

### PISATZE INDUSTRIALA

SAMSÓ, S. A. Baskulak  
26 Pol. Ind.  
Tf.: (943) 55 48 83 - 55 16 21  
F.: (943) 22 14 02

P1-103